



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/04/29

Hiroshimako alkateak bonba atomikoa pairatu eben zuhaitzaren kimua “lur hontan sustraiak botatea eta bakearen sinboloa bilakatzea”-ren desioa agertu du

Ekitaldian, erakunde giroa baino gehiago, sinbologia eta herri bien arteko anaikidetasuna izan dira nagusi. Bere esku hartzean Lehendakariak adierazo dauenez, Gernikako haretxa eta Hiroshima “ginkgo biloba” anaitzea “memoria egitea eta biztanle zibilen kontrako bonbardaketen bidebakokeria berrestea da”. Gaurtik aurrera, “bakearen eta askatasunaren sinboloa eta itxaropenaren sinboloa alkarren ondoan egongo dira Gernikan”, zehaztu dau Lehendakariak. Bere esanetan, “ohorea” da “indarkeria, gerra eta terrorismo bako mundua” eta “alkarregaz bakean bizitzea posible dala” dinon itxaropenezko mezua Hiroshimako ordezkariakaz konpartitu ahal izatea.

Kazumi Matsui Hiroshimako alkatea buru izan dan Japoniako taldea Yasuyoshi Komizo Mayors for Peace erakundeko Idazkari Nagusiak, Josep Mayoral Granollerseko alkate eta Mayors for Peaceko Presidenteordeak eta Yasco Suehiro Mayors for Peaceko Presidenteak be osatu dabe. Arbolea landatzeko ekitaldiaren aurretik, Batzarretako eraikinagaz eta Gernikako Arboleagaz lehen hartu-emona eukiteko aukera izan dabe.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea eta Unai Rementeria Ahaldun Nagusia izan dira ordezkartzari Lurralde Historikoaren historiaren aitamen batzuk emotearen arduradunak. Kontakizunari amaieraa emoteko, opari truke hunkigarria egin da. Ahaldun Nagusiak Gernikako Arbolaren haretx ostro batzuk emon deutzaz Hiroshimako alkateari. Japoniako ordezkartzaren oparia, lurralde haretako kondaira esanguratsuenetakoa izan da: mila kurluak. Bakearen sinbolo hori Hiroshimako neskato batek bonba atomikoaren ondorioz eukan gaixotasunetik sortu zan; osatzeko asmoz, neskatoak paperezko mila kurlu egin ebazan, eta hil zanean, Japonia osotik paperezko milaka kurlu bialdu ziran neskatoaren etxera.

“Euskal askatasunen sinboloaren aurrean zagoze, gure tradizino bitxienak, milaka urtekoak, sinbolizetan dituen Arbolaren eta Batzarretxearen aurrean zagoze” azaldu dau Batzarretako presidenteak hemizikloan bertan. Gernikako bonbardaketea bere hitzaldian presente eukita, Otadui “geure arbola sinbolikoa, II. Mundu Gerra haretan gizakiaren txarrena erakusten daben uriakaz lotzeko” asmoa adierazo dau. Batasun hori, “gure itxaropenaren zugutzen” hurbilketeagaz gauzatzen da gaur, eta “etorkizunean Gernika-Bizkaia-Euskadi eta Hiroshima-Japonia artean Bakearen alde egingo dogun beharraren beste pausu bat” da.

Leku horretan bertan, baina jarleku batetik, Hiroshimako alkateak herri bien arteko antzekotasunak aitatu ditu. Halanda be, azpiegitura enblematikoez eta baliabide naturalez aparte, Matsui bakearen turismoa azpimarratu dau, “nire berbetan aitatu dodazan balio horreek guztiak bisitariei transmitiduteko modua dalako”. Adierazo dauenez, Gernikak

be eredu berbera jarraitzen dau, eta horren bitartez, “mundu osoan bake iraunkorra lortu” ahal izango da.

Lehendakaria Batzarretako egoitzara heldu danean emon jako hasierea *Gignko Biloba* arbolea Europako Herrien Parkean landatzeko ekitaldiari. Bertan herritarrak, Gernikako bonbardaketatik bizirik urtetea lortu eben personak eta erakundeetako agintariak alkartu dira.

“Arma nuklearrek eragindako beste hondamendi baten aurrean egotearen aukerea oso handia da”, adierazo dau José María Gorroño Gernikako alkateak, daborduko landatutako kimuaren ondoan. Gainera, esandakoa berretsi egin dau, “herrialde batzuek” ez dabelako beteten “arma nuklearrak ez ugaritzeari buruzko tratatua”. “Emoten dau ez dala nahikoa izan Hiroshimako eta Gernikako biztanle zibilen kontrako ekintza kriminal horreen ostean ikusitako bildurrezko koadrua, ekintza horreetan gizateria osoak gizakiak hondatzeko daukan gaitasuna ikusi ahal izan eban arren”, esan dau.

Hitzaldi labur baten bitartez, Hiroshimako alkateak, bonba atomikoak bere uria suntsitu eban 1945eko abuztuaren 6a gogoratu dau. Bertan egoan “gaur landatuko dogun kimu honen arbola aita”. Dana dala, “suak eta zentzunbakokeriak suntsitu eben arren, barriro be erne zan, eta ausardia eta itzaropena emon euskuzan”. Japoniako arbolak “lur honetan sustraiak botatea eta Gernikako bere anaiagaz gertatzen dan moduan bakearen sinboloa izatea” gurako leukela be esan dau.

Ekitaldi sinbolikoa, Hiroshimako alkateak, Mayors for Peace erakundeko Idazkari Nagusiak, Lehendakariak, Bizkaiko Batzar Nagusietako presidenteak, Ahaldun Nagusiak eta Gernikako alkateak emon dituen lehenengo palakadakaz bukatu da. Ostean, bertan alkartu diran herritarrek eta agintariek gauza bera egin dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

29/04/18

El alcalde de Hiroshima expresa el deseo de que el retoño del árbol que sobrevivió a la bomba atómica “enraíce en esta tierra y sea un símbolo de paz”

Un acto en el que, más allá de la institucionalidad, ha imperado la simbología y el hermanamiento entre dos pueblos. En su intervención, el Lehendakari ha asegurado que hermanar el roble de Gernika y el “ginkgo biloba” de Hiroshima supone “hacer memoria y reiterar la injusticia de los bombardeos indiscriminados contra la población civil”. A partir de hoy, “el símbolo de la paz y la libertad y el símbolo de la esperanza estarán juntos en Gernika”, ha precisado el Lehendakari. A su juicio, es “un honor” poder compartir con representantes de Hiroshima el mensaje de esperanza de que es posible “un mundo sin violencia, sin guerras y sin terrorismos” y “vivir y convivir en paz”.

La comitiva japonesa, encabezada por el alcalde de Hiroshima Kazumi Matsui, ha estado compuesta por Yasuyoshi Komizo, Secretario General de Mayors for Peace; Josep Mayoral, alcalde de Granollers y Vicepresidente de Mayors for Peace; Yasco Suehiro, y la directora de Mayors for Peace. Previamente al acto de plantación han tenido la oportunidad de tener un primer contacto con el edificio parlamentario y el Árbol de Gernika.

La presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, junto con el Diputado General, Unai Rementería, han sido los encargados de trasladar a la delegación unos bosquejos de la historia del Territorio Histórico. Un relato que ha culminado con un emotivo intercambio de obsequios. El Diputado General le ha hecho entrega al edil japonés de una las hojas de roble pertenecientes al Árbol de Gernika. El obsequio japonés, por su parte responde una de las leyendas más representativas de la región: las mil grullas. Este símbolo de paz surgió a raíz de la enfermedad de una niña de Hiroshima como consecuencia de la bomba atómica; con el objetivo de curarse, cuenta la historia, la pequeña confeccionó mil grullas de papel, y al morir Japón se volcó en enviar grullas de papel a su casa.

“Están ustedes ante el símbolo de las libertades vascas, están ante el Árbol y el Parlamento que simbolizan nuestras tradiciones más singulares y milenarias” ha explicado en el mismo hemiciclo la presidenta de Juntas. Con el recuerdo del bombardeo de Gernika presente en su discurso, Otadui ha expresado el deseo de “unir con nuestro simbólico árbol a ciudades que representan lo peor del ser humano en el marco de aquella II Guerra Mundial”. Una unión que se materializa hoy con el acercamiento de “nuestros árboles de la esperanza” y que supone “un nuevo paso en un futuro trabajo en común entre Gernika-Bizkaia-Euskadi e Hiroshima-Japón en favor de la Paz”.

En el mismo espacio, pero desde uno de los escaños, el alcalde de Hiroshima, ha hecho referencia a las similitudes entre ambos pueblos. Sin embargo, además de las

infraestructuras emblemáticas y los recursos naturales, Matsui ha resaltado el turismo de paz “como medio para transmitir a los visitantes todos estos valores que he ido mencionando en mis palabras”. Un ejemplo que, como ha especificado, también sigue Gernika y mediante el cual podrán “lograr esa paz inmutable en el mundo”.

Con la llegada del Lehendakari a la dependencia foral, se ha dado comienzo al acto de plantación del *Ginkgo Biloba* en el Parque de los Pueblos de Europa, donde se han congregado vecinos y vecinas del municipio, supervivientes del bombardeo de Gernika y las autoridades institucionales.

“La posibilidad de que estemos ante un nuevo episodio de arma nucleares es muy alta”, ha afirmado el alcalde de Gernika, José María Gorroño junto al ya plantado retoño. Asimismo se ha reafirmado asegurando en la falta de cumplimiento del “tratado para la no proliferación de armas nucleares” por parte de “algunos países”. “Parece que no hubiese sido suficiente el cuadro de horror que se vio después de estos actos criminales contra la población civil de Hiroshima y Gernika en que la humanidad fue testigo de la capacidad de destrucción del ser humano”, ha sentenciado.

Con un breve discurso, el alcalde de Hiroshima ha recordado aquel 6 de agosto de 1945 en el que la bomba atómica arrasó la ciudad, incluyendo “el árbol padre de este retoño que plantamos hoy”, no obstante “aunque fue destruido por el fuego y la sinrazón, brotó de nuevo y nos dio valor y esperanza”. Asimismo ha expresado su deseo de que el árbol “enraíce en esta tierra y que sea un símbolo de la paz como su hermano de Gernika”.

El simbólico acto ha culminado con las primeras paladas por parte del alcalde de Hiroshima, el Secretario General de Mayors for peace, el Lehendakari, la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, el Diputado General y el alcalde de Gernika. Un gesto al que se han ido sumando el resto de vecinos y autoridades presentes allí.